

FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

UNAI ITURRIAGA eta IGOR ELORTZA rekin idatzia

ZUZENDARIA: XIMUN FUCHS

AKTOREAK: ANDER LIPUS PATRICIA URRUTIA MANEX FUCHS
ZOILA BERASTEGI URKO R. PESCADOR PAKO REVUELTAS ERIKA OLAIZOLA

Artedrama | Le Petit Théâtre de Pain | Dejabu Panpin Laborategia

FRANCOREN BILOBARI GUTUNA | DOSIERRA





www.franco.eus

FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

Zuzendaritza: Ximun Fuchs

Idazkera: Unai Iturriaga &
Igor Elortza

Aktoreak: Ander Lipus
Patricia Urrutia
Manex Fuchs
Zoila Berastegi
Urko R. Pescador
Pako Revueltas
Erika Olaizola



AURKIBIDEA

ANTTON LUKU, LIBERTITZEAZ	04
HARIAREN SINOPSIA	
SINOPSIA	05
ABIAPUNTUA	05
ANTZEZLANA	
PROPOSAMEN ESZENIKOA	08
IDAZKERA	08
GAI ARDATZAK	09
ERREFERENTZIA NAGUSIAK	09
BITARTEKARITZA PROPOSAMENA	12
LAN TALDEA	14
EGUTEGIA	16
LAGUNTZAILEAK	18

“Buka dezagun bortizkeriarekin. Bortizkeria ez da negatiboa antzerkian baina antzerki bera bortizkeria da. Artaud, Brecht, Brook edo denek aipatu dute Antzerkiaren ankerkeria beharra. Bizia lardaskatu behar du eta hitz hartze antinaturalista horrek hitza agerrarazi behar du biluztasunaren obzenitatean. Gure antzerkia hiltzen ari du gaien interesik gabeak eta irudi inpaktanteen faltak. Erakundeen antzerkian orde “spectacle vivant” nozio frantsesa ezarri nahi dute. Hemen ari gara elkarri gezurka, hau edo hura biziki ontsa dela... aintzinatzen ari garela, antzerkirik ez delarik batere aipatu gauza horietan, polemikari ihes egiten dugu eta tabuak tabu daude, kulturak ez du biziarekin harremanik, lobelarra da. Aintzinatzen ari omen gara eta gure gazteak frantsesez ari dira euskarak ez duelako interesik gure ondoezaren ehotzeko. Gure begien aitzinean aldatu nahi zaio antzerkiari betidanik ukan duen funtzioa eta izatea. Bortitz hori. Irendu nahi da. Kontra iritzirik ez delako onartzen, pentsamolde antidemokratiko honek, formaz zentrismoarekin nahasten dena, oposizio guziak ukatzen ditu, deskalifikatuz. Kontra iritzia bera da bortizkeria, onar ezina, testuinguru eri horretan.”

Antton Luku, *Libertitzeaz*

HARIAREN SINOPSISIA

“Gerra hartatik itzuli zenean, Xamuiok ez zuen apenas hitz egiten. (...) Izaki isil bilakatu zen Xamui. Gerrako dramek eta gerora bizituko zituen une mingarriek hitz sosegatuaren aukera kendu zioten. Batzuetan, lagunarte edo senitartean bertsoak botatzen zituen. Batzuetan, gerrako pasarteak eta krudeltasuna biltzen zituen bertso haietan, gerrak beregan utzitako markak.”

Ixiar Rozas, Beltzuria

SINOPSISIA

Iñakik hamar urte eta leuzemia ditu. Joxanek berrogeita sei urte eta gerra zibileko obus baten txatala buruan. Etorkizun bideragarriarik ez duen ospitalean iragana eta oraina kateatzen dira Migel eta Kristina medikuen ametsetan. Itxarongeletan sekula agertzen ez diren pazienteen izen zerrendak entzuten dira ordena alfabetikoan eta Carmen Martinez-Bordiuk betetzen du bihotzeko aldizkari maiztuaren azala.

Iraun beharraren gaitzak jotako komunitate baten hezurren eta gezurren erradiografia traumatologikoa da Francoren bilobari gutuna.

ABIAPUNTUA: XIMUN FUCHSEN PROPOSAMENA

Antzezlan honen abiapuntua Ximun Fuchs zuzendariak ‘Errautsak’ obra osatu genuen lan-taldeari bidaliriko email bat izan zen, proiektu berri baterako proposamena eginez. Ondoko hau da mezu haren eduki nagusia:

“Günther Anders filosofo judu alemana Annah Arrendt, Brecht edota Marcusen laguna zen. 1964an, ‘Gu, Eichmannen seme-alabak’ idatzi zuen. Liburua, gutun filosofikoa da, Eichmannen semeari zuzendua. Eichmann bahitua izan zen (Mossadek antolatua Argentinan), eta haren aurkako auzi erraldoiaren ondotik (Jerusalemen) urkatua; eta liburua, gertakari hauen ostean idatzia, noski. Jakina da ere Eichmann deportazioaren antolatzailea zela, beraz, milioika erahilketen antolatzailea, bere burua funtzionario

HARIAREN SINOPSISIA

xumetzat bazuen ere. Auzi honen ondotik, Annah Arrendtek "gaitzaren banalitatearen" teoria sortu zuen, hots, bi hitzez azalduta, gaitza deabrua ez dela azaltzen duen teoria. Eichmann funtzionarioa zen, ez zen espiritu liluragarria, eta funtzionario sinple bezala, basakeri afrusenak antolatzeko gai izan zen.

Hari hortatik idazten dio Günther Andersek semeari, bere aitaren biktima bezala aitortuz (azpitulua "sei milioi eta bat" da). Ez baitu, bere aitak egin zuen bezala, bere izenagatik inor epaitu nahi, Eichmann izanik ere izen hori. Eta eskatzen dio bere aitaz aldentzea, eta buru-belarri sartzea borrokan, gaitzaren itzalaren aurka, basakeriaren seme-alaben eraikin izugarrien aurka.

Nazismoak auzia ukan du, bai Jerusalem, eta baita Nurembergen ere. Frankismoak ez. Eta gutun bera ezin da idatzi.

Zergatik diot hori? Nire bi aitatziek gerlaren ondorioak jasan zituzten molde basatienean. Bat judu alemana zen, frantziara ihes egin zuena; haren familia guztiak (guraso, neba-arrebak etab.) Auschwitz berratu zuten. Juduak zirelako. Bestea euskaldun peto-petoa, eta nazien aurka gerlara joateko (ipar afrikan ziren tropa frantsesak), muga pasa zuena. "Beste aldean" ere euskaraz ari zirela ohartuta, guardia zibil bati galdetu zion geltokia non zegoen, baina euskaraz... Hilabeteak pasa zituen kontzentrazio eremu batean, erahilketak milaka ikusi ditu, infernua jasan zuen. Euskalduna zelako.

Joan den urtean, Lizeo bateko irakasle batek galdetu zion ikasle bati: "T'es con ou t'es basque?" (Tontoa zara ala euskalduna zara?). Eta klaseak irri egin zuen. Ikasleak berak ere. Ona txistea. Baina irakasle berak esan lezake "T'es con ou t'es juif"? (Tontoa zara ala judua zara?). Ona litzake txistea berdin-berdin, ezta?

Gure obra antzerkia izango da; ez gara ez filosofo, ez historiagile, ez soziologo, ez... Baina euskal antzerkiak auzia erabili baldin badu askotan bere trabesak azaltzeko plazaren erdian, egin dezagun gurea. Franco hil da eta, berez, mamu bat edo panpin txar bat besterik ez da. Baina bere ondarea

HARIAREN SINOPSISIA

beti hor da. Eta bere bilobari molde sinbolikoan itzuli nahi diogu ondare hori, bere familiari eta berei orokorrean. Beraiek odol isurtze izurriteetan ebatsitakoa sekula ez digutela itzuliko argi da ez?”

ANTZEZLANA

PROPOSAMEN ESZENIKOA

Gure istorioa ospitale batean gertatuko da. Belarra, oheak eta jantzi zuriak. Zaharra da, eta, beraz, historia bat badu. Gelak falta ditu, gaixo batzuk gurpildun oheetan lo egiten dute korridoreetan, ahal den lekuan. Musika atsegin bat entzuten da urrunean, bozgoragailu zaharkitu batean. Ospitalea, Europako ospitale guztiak bezala, funtsean, kinka larrian da. Lan egoera txarrean. Gaixoak noraezean ikusiko ditugu, inposibilitatearen ballet gozoan.

Eta bakoitzaren bizitzan sakondu ahala, gutarikoen istorio txikiak margotzen hasiko gara. Historia, hizki handiz barik hurbileko istorioetatik kontatuko dugu. Euskal jendearen ibilbidea antzerki bihurtzeko, istorio txiki horietan oinarrituko gara. Ospitale prekarioan harat-honat galduan dabiltzan gaixoon sintomen eta haien zein haien aurrekoen bizipen, izu eta pertzepzioen bitartez, euskaldunon gaur egungo arriskuei erreparatuko diegu. Paziente horiek zaintzale bihurtuko dira: bizien eta hilen munduaren arteko pasaia zaintzen dute.

Bestalde, mugimendu eszenikoa, Philippe Ducou koreografoarekin landuko dugu. Tantztheater alemaniarraren maisu ospetsua da Philippe, eta horrek badu zerikusirik Ximun Fuchsek antzerkiari eman nahi dion formarekin: ekintza fisikoa poetikaren eragiletzat hartuko dugu.

Espazioa, esan bezala, nahiko hutsik agertuko da: belarra, oheak eta aulki pare bat. Aire beharko da istorio horiei guztiei lekua uzteko. Gorputzek eurek sortuko dituzte behar diren espazioak, errealak izan zein ez.

IDAZKERA

Antzezlan Unai Iturriaga eta Igor Elortzak idatziko dute. Ez dute idatziko entseguetatik kanpo idazten diren antzerki horien moldean, neguko tomateak lurrik gabe hazten diren moduan. Idazkera, oholtzari intimoki lotuta izanen da, egitasuna eta indarra babesteko. Bertsolaritza eta

ANTZEZLANA

antzerkia lotuak dira euskal antzerkian, gure antzerkia zirtolari antzerkia baita, eta bertsolaritzak eman baitio antzerkiari bere mamiaren bermea.

GAI ARDATZAK

Obra honetan hiru gai landuko ditugu: gizartearen osasuna, izugarrikerien transmisioa, eta Frankismoaren oroimena eta herentzia.

Alde batetik, ospitalea dugu, beraz: osasunaren gaia. Gizartearen gaixotasuna neurologiaren ikuspuntutik landuko genuke. Bestetik, gaixoak dauzkagu: euren egunerokotasuna eta iragana. Azkenik Francoren itzala: haren biloba.

Gai hauek uztartzea da gure helburua. Obraren bukaeran, Francoren bilobari bidaltzen zaion gutunak hartu dezake obraren mami eta istorio ezberdinen lotura eta zentzua; gutun hori ekintza sinboliko bat izan daiteke, ez du derrigor idazki bat izan behar. Bestalde, aldarte baikor batekin bukatu nahi genuke lana. Ia-ia zerbait terapeutikoa bilakatu, argitasunerantz bidea zabalduz.

ERREFERENTZIA NAGUSIAK

Hiru autore eta haien liburu jakin batzuk aipatu ditugu asko: Gunther Anders eta bere 'Gu Eichmannen seme-alabak'; Oliver Sacks eta bere 'Musicophilia' eta 'Espirituaren begia'; eta Nathalie Zadge eta bere 'Bizirik atera direnen seme-alabak'.

ANTZEZLANA

Günther Anders

Gunther Andersek Eichmannen semeari idatziriko gutun luzearen zenbait pasarte ekarri ditugu gurera, adibidez. Hark bere burua Eichmann aitaren biktimatzat aitortu zuen moduan, guk ere geure burua irudikatu dugu Francoren bilobari idazten, haren aitonaren biktima moduan:

Oliver Sacks

Oliver Sacks asko aipatu izan dugu gure sindromeen aztarnen azalarazteko moldean. Oliver Sacks neurologoa da batez ere, eta ikuspegi horretatik aztertzen du gizakia, psikiatriatik edo psikologiatik aldenduz, eta bere lanetan ez du arlo klinikoan sakontzen; gehiago interesatzen zaizkio gaixoen bizipen eta ikuspuntuak. Alde baikorra bilatzen du, pertsonen indar paregabea, eta imaginazioz beteriko aterabideak plazaratzen ditu.

Nathalie Zadge

Nathalie Zadge etno-psikiatraren lanetan oinarrituko gara gutarikoen istorio txikiekin gure historiaz jarduteko. Hark giza-taldeen ibilbidea aztertzen duen modu berean, guk ere tribuan aurkitzen diren aterabideak bilatuko ditugu, traumatismoari aurre egiteko, belaunaldiz belaunaldi. Familia giroa, historia eta kultura ikertuz, etnopsikiatrak izua aztertzen du. Ez ilusio bat bezala, arriskuaren pertzepzio fin bat bezala baizik. Une oro bizi den arrisku bat. Pertzepzio fin horren lana da krimen industrializatuaren destrukzio operazioa neutralizatzea, belaunaldiz belaunaldi transmititzen dena. Genozidioen seme-alabek amets, beldur eta sindrome berberak garatzen omen dituzte.

Goian aipatutako autoreez gain (Oliver Sacks, Nathalie Zajde eta Günther Anders), eta kontatu nahi dugunaren gaietan sakondu asmoz, bibliografia zabala erabiliko dugu. Adibidez, euskal idazle batzuk aipatzearren: Garbiñe Ubedaren "Hobe isilik", Ixiar Rozasen "Beltzuria" eta Unai Elorriagaren "Tazko hezurak". Eta gainera, artxibo, gaiaren inguruko erakusketak,

ANTZEZLANA

aldizkari, artikulua, erreportaia, film eta dokumentu ezberdinak baliogarriak izango dira aurrera eramane nahi dugun lanerako. Iturri ezberdinetatik edango dugu gure proiektua aberastu asmoz.



Enfermos tomando el sol en el Sanatorio 1944 (Fondo Arazuri, en el Archivo Municipal de Pamplona).

BITARTEKARITZA PROPOSAMENA

“FRANKOREN BILOBARI GUTUNA” IKUSKIZUNAREN HARITIK

Ikuskizun honen karietara, hainbat topaketa mota dira posible, eta talde ezberdinak interesatuak izan daitezke: eskola taldeekin lan egin dezakegu (11 urtetik gora), antzerkizaleekin, hospitaleekin... proposamen oro ongi etorria zaigu.

Hona hemen zenbait aukera, zabalenetatik espezifikoetara:

Edozein emanaldi eman aurretik, gonbidatzen gaituen antzezlekuari egokitzeko lan bat egin ohi dugu. Multzo berezitu batekin elkartzeko aukera bat sor lezake. Aktoreekin elkarrizketak pizteko medio bat da, antzerki taldearen lan metodoak konkretuki aipatzeko unea izan daiteke, ikusmolde artistikoa ukitzeko molde bat.

Emanaldi bat ikusi behar duten talde guztientzat, topaketa bat proposatzen dugu ikuskizuna hasi aurretik, lehen kontaktu bat lortzeko gisan. Taldea aurkeztuko dugu, bere ibilbidea, eta ikuskizuna mamitzen duten gaiak ere aipagai izango ditugu (memoria eta ahanztura, traumatismoen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa, zein dira Günter Anders, Nathalie Zajde eta Oliver Sacks, baita Gurs-eko zerrategia, Saturrarangoa, Ezkabakoa, langile behartuak, tortura, hobi komunak, eta abar)

Emanaldiapasa ondoren, beste topaketa bat finka dezakegu “esperientziaren ondorioak” ateratzeko, antzerki munduan sartzeko bideak irekiz. Ikuskizunaren alderdi ezberdinak aztertuko dira, taula zuzendaritza, aktoreen jokoa, publikoarekiko harremana, koreografia, eszenografia, argiztapena, soinua, jantziak... Hortik aurrera, ikuspegia zabaltzen ahal dugu, antzerkiaren ekintza eremu ezberdinetan murgilduz: lau paraten artean, kalean, karpa azpian... Bide horretatik, espazio publikoaren nozioa aipatuko dugu, gutariko bakoitza espazio horren inbestitzera gonbidatuz.

Euskal Herriko historia hurbila tabuz josia dago, ez esanez, eta modu partzalean kontatua da bakarrik (ez da Nuremberg-eko auziaren parekorik izan Spainian). Ondorioz, elkarte asko daude, maiz biktimen familiek sortutakoak, informazio bilketari, jakintzen transmisioari, eta desagertuen

BITARTEKARITZA PROPOSAMENA

bilaketari dedikatzen direnak. Informazio eta “giza tamainuko” historia andana baten iturria dira. Orain arte bildu dugun lekukotasun eta artxibo (paper eta irudi) kopuru haunditik probetxua atera nahi genuke. Proiektuan interesatuak diren irakasle guztiei USBan eskura emango diegun sintesi bat eraikitzen gabilta, gaia modu transbertsalean landu ahal izaiteko (literatura, Historia, antzerkia, giza-zientziak, biologia...).

Elkarte askorekin lan egiteko xedea dugu, ikuskizunetik abiatu eta ikasleekin harremanetan sartzeko bidea asmatzeko. Jakin mina piztea dugu helburu, historiari aurpegi bat ematea, eta kontakizun biziak, gaur egungo giltza batzuen ulermena ahalbidetzea.

LAN TALDEA

Unai Iturriaga & Igor Elortzarekin Idatzia

Zuzendaritza:	Ximun Fuchs
Aktoreak:	Ander Lipus Patricia Urrutia Manex Fuchs Zoila Berastegi Urko R. Pescador Erika Olaizola Pako Revueltas
Argiztapena:	Josep Duhau
Koreografia:	Philippe Ducou
Musika:	Asier Ituarte
Teknika:	Gotzon Hegoas
Argazkiak:	Guillaume Méziat
Bideoa:	Eñaut Castagnet
Jantziak:	Marodi Sorkuntzak
Irudia:	Hiru Damatxo
Media:	Roberto Quintana
Administrazioa:	Iasone Parada Elorri Etcheverry Xabino Alkorta Kattalin Ezcurra Irantzu Azpeitia Elise Robert Laudette


LAN TALDEA

Ekoizpena : Artedrama
Le Petit Théâtre de Pain
Dejabu panpin laborategia

Euskal antzerkiaren altzoan

Badira urte batzuk Euskal Herriko hiru lurraldetako hiru antzerki talde elkartu ginela, Artedrama (Bizkaia), Le Petit Théâtre de Pain (Lapurdi) eta Dejabu Panpin Laborategia (Gipuzkoa). Batasun honek euskal teatroari beste hauspo bat ekarri dio, euskarazko teatroari. Gutxika-gutxika antzokietara publiko berria erakarri dugu eta lanketa horretan jarraitu nahi genuke. Ahalegina egingo dugu FRANCOREN BILOBARI GUTUNA lana ahalik eta Euskal Herriko antzoki gehienetan emateko ere.

Elkarrekin sortu genituen:




EGUTEGIA

Egonaldien egutegia:

- 2015eko martxoaren 23tik 25era: Hameka / CC Errobi-Itsasu
- 2015eko irailaren 7tik 10era: Hameka / CC Errobi-Itsasu
- 2015eko azaroaren 30etik abenduaren 4ra: Hameka / CC Errobi-Itsasu
- 2016ko otsailaren 29tik martxoaren 4ra: Baxe Nafarroa Herri Antzokia / Izpura eta Donazarre
- 2016ko maiatzaren 22tik 27ra: Niessen Kulturgunea / Errenteria-Orereta
- 2016ko urriaren 3tik 8ra: Azpeitia
- 2016ko urriaren 10etik 31ra: Hameka / CC Errobi-Itsasu

Estreinaldia 2016ko urriaren 31n Luhusoko Harri Xuri aretoan.



EGUTEGIA

Birako egutegia:

2016 :

- Urriak 31 . **Luhuso**

- Azaroak 2 . **Gasteiz**
- Azaroak 4 . **Azpeitia**
- Azaroak 9 . **Donostia**
- Azaroak 10 . **Donostia**
- Azaroak 11 . **Donostia**
- Azaroak 12 . **Donostia**
- Azaroak 13 . **Donostia**
- Azaroak 17 . **Bilbo**
- Azaroak 18 . **Leioa**
- Azaroak 19 . **Donibane Garazi**
- Azaroak 26 . **Larresoro**

- Abenduak 1 . **Iruñea**
- Abenduak 3 . **Senpere**
- Abenduak 4 . **Hondarribi**
- Abenduak 6 . **Durango**
- Abenduak 9 . **Sopela**
- Abenduak 11 . **Markina-Xemein**
- Abenduak 16 . **Zumaia**
- Abenduak 17 . **Otxandio**
- Abenduak 18 . **Ataun**

2017 :

- Urtarrilak 13 . **Gernika**
- Urtarrilak 15 . **Orereta**
- Urtarrilak 20 . **Zornotza**
- Urtarrilak 22 . **Oñati**
- Urtarrilak 27 . **Basauri**
- Urtarrilak 28 . **Berriz**
- Urtarrilak 29 . **Arrasate**

- Otsailak 10 . **Zarautz**
- Otsailak 12 . **Villabona**
- Otsailak 16 . **Santurtzi**
- Otsailak 17 . **Arrigorriaga**
- Otsailak 19 . **Irurita**
- Otsailak 24 . **Elorrio**

- Martxoak 4 . **Azkoitia**
- Martxoak 11 . **Hernani**
- Martxoak 12 . **Atarrabia**
- Martxoak 24 . **Biarritz**
- Martxoak 31 . **Hendaia**

- Apirilak 22 . **Aulesti**
- Apirilak 28 . **Tolosa**

- Maiatzak 5 . **Ermua**

FRANCOREN BILOBARI GUTUNA

LAGUNTZAILEAK

Francoren Bilobari Gutuna ondorengo eragileek sustengatzen dute:



- Kultur Leioa



- Hameka



- EJ GV



- Errenteriako Udala



- San Agustin Kulturgunea



- Baxe Nafarroako Herri Antzokia



- Eke



- Kultur Leioa



- Euskadi Akitania



- Mugalariak SS2016



- Ministère de la Culture



- Region Aquitaine